

1. ENTZUNGAIA

Ariketa honetan irratiko bost informazio entzungo dituzu bi aldiz. Esaldiak dituzu alde batetik eta entzungo duzun informazioa bestetik. Zuk parekatu egin behar dituzu adibidean (0 zenbakia) bezala. Bost esaldi sobran daude.

A Azken lanak kaleratzeari buruz ari da Jose Angel.

B Barruan zuena ateratzeko beharra zuen Xabierrek.

C Bere azken lanak galdu dira.

D Ezin izan zuen olerki berririk idatzi.

E Gaixotasunak ez zuen Xabierren indarra itzali.

F Hiletan inguruko datuak.

G Iruditeri sortzaile izan zen.

H Olerki berriak idatziak zituen Xabierrek.

I Xabier pertsona ezkorra zen.

J Xabierrek ez zuen indarrik.

K Xabierren elikaduraz ari da Jose Angel.

INFORMAZIOA	0	1	2	3	4	5
ESALDIA	G					

2. ENTZUNGAIA

Ariketa honetan Euskadi Irratiko *FAKTORIA* saioan emandako elkarrizketa entzungo duzu bi aldiz. Aukeratu erantzun egokia (a, b, c) adibidean (0 zenbakia) bezala.

0. Elkarrizketatua ...

a) **Anje Duhalde da.**

b) Michel Ducau da.

c) Xabier Amuriza da.

6. Zer egin du aurkezleak?

a) Gaizki aurkeztu du elkarrizketatua.

b) Kantatzen hasi da eta ez du ongi egin.

c) okertu egin da, hanka sartu du.

7. Anje Duhaldek ...

a) abeslari konprometitua izan nahi du, baina ez dago eroso.

b) antzeztu du abeslari konprometituarena, eroso sentitu da.

c) benetako kantari konprometitua izan da.

8. Goizean kantuak ...

a) bere barnean zalantzak eragin dizkio.

b) lagundu dio erretzeari uzten.

c) lagunduko dio *Ducados* tabakoa uzten.

9. Bere musika irratian edo tabernan aditzean ...

a) gustura sentitzen da Anje.

b) eskertzen du Anjek bere musika entzuteko aukera.

c) ez da eroso sentitzen, nahiago du ez entzun.

10. Aspaldikoa sentitzen al da Anje?

a) Ez du modarik segitzen.

b) Modak jarraitzen ditu.

c) Modaz pasatakoa da.

INFORMAZIOA	0	1	2	3	4	5
ESALDIA	A					

3. ENTZUNGAIA

Ariketa honetan Euskadi Irratiko *ALBISTE FAKTORIAN* saioan emandako informazioa entzungo duzu bi aldiz. Aukeratu erantzun egokia (a, b, c) adibidean (0 zenbakia) bezala.

0. Gaur ...

a) **abenduaren 3a da.**

b) abenduaren 4a da.

c) abenduaren 13a da.

11. 1949. urtean ...

a) Eusko Ikaskuntzak euskararen eguna ospatu zuen Espainian.

b) Eusko Ikaskuntzak euskararen eguna ospatu zuen iparraldean.

c) Eusko Ikaskuntzak ezin izan zuen euskararen eguna ospatu.

12. Abenduaren 3an, beraz ...

a) euskara hizkuntzak egun berezia ospatzen du.

b) Eusko Ikaskuntzaren eguna ospatzen da.

c) Lehen Mundu Bitzarra egin zela ospatzen da.

13. Zein da *mintzodromoaren* helburua?

a) 100 pertsona biltzea Donostian.

b) Euskaraz elkarren artean mintzatzea da.

c) Lehen aldiz euskararen balio unibertsala aldarrikatzea.

14. Donostian eguraldi kaxkarra dago eta jendeak euritakoa ...

a) euriari aurre egiteko darama.

b) ez du zabaltzen ahal haize handiarengatik.

c) haizearen aurka darabil.

15. Zeri buruz mintzatu dira aurten *mintzodromoan*?

a) Kontsumismoaren aurkako bidez eta aukeraz.

b) Real Athletic derbyaz.

c) *Union Artesana* elkartearen erretzea bai ala ez.

INFORMAZIOA	0	1	2	3	4	5
ESALDIA	A					